

## “Basamortu eder honetan izar gutxi baina itzelak sortu dira”

Gorka Benitez | Jazz gizona

Bilbo 1966. Tenor saxo aparta. Arnasketa zirkularra egiten dakienez, txistuka hasi eta bi txistu ari direla ematen du. Gautxori, alproja, txirene eta niu-yorikan.

FERMIN ETXEGOIEN

Argazkia: Débora Tenenbaum

### Aspalditik Bartzelonan zaude eta egungo jazzean lehen saxo tenorra zarela diote...

Sekula ez dut horretan pentsatzen, ezta pentsatuko ere. Besteek esan dezatela. Nire lana ahalik eta hobekien egiten saiatzen naiz, ahalik eta zintzoen. Ez dut uste ranking-a dagoenik, gustu kontuak baizik.

### ... munduko jazz potentziarik handienetakoan jaio izanari esker, noski, udako jazzaldiek erakusten duten gisan.

Kar, kar, kar. Basamortu eder honetan dagoen harrigarriena zera da, izar gutxi baina itzelak sortu izana: Javier Colina, Victor eta Juan de Diego, Santi Ibarretxe, Franc Rubio eta abar.

### Alboka piezak grabatu dituzu jazz diskoetan.

Enteratu al zara? Txikitatik nire gogoko tresna da. Baina fusiorik gabe. Modu erabat organiko eta naturalean.

### Estatu Batuetan euskal jatorriko umeei txistua irakatsi diezu udalekuetan.

AEBetan nengoela izandako bizipenik ederrenetakoa. Giza talde itzela geneukan, toki eta pertsona asko ezagutu nituen eta gainera gure kulturaren alde zerbait egin ere. Oraindik hango usainak etortzen zaizkit, izan ere jende gutxi imajina dezake Estatu Batuetako euskal komunitate bat benetan zer den. Betiko eskertuta natzaie. John & Jenni and the crew.

### Japonian biran izan zara bertako flamenko dantzarri batekin.

Sekulako pagotxa izan zen Chicuelo, David Lagos, El Londres, David Iglesias, Chiqui de la Línea edota Albert Bover, Pep Perez eta David Gomez bezalako

artistekin biran ibiltzea. Jazz eta flamenko uztarketa izan zen. Guretzat flamenko ikastaro trinkoa, jazz-lariok txiki sentitzen baikin. Musikalki emanaldiaren aurretik zein ondoren onena gertatzen zen. Oso harrigarria, gurekin zerikusirik ez baina bizipen bakarra. Chicuelo gitarristak aurten egiteko ere deitu dit, baina ezingo dut beste konpromiso batzuk direla kausa.

### Aipa ditzagun orain zure azken boladako emakumeak: Martirio, Omara Portundo, Carme Canela...

Neuk bai zorte handia. Haietariko bakoitzarengandik ikasi eta gozatu egiten da, musikaz eta bizitzaz. Artista itzelak dira eta sorkuntzarako iturri. Nahi nuke lagun asko aldamenean izan, haiekin jotzea zer den senti dezaten.

### Bizi eta ikasi –edan eta maitatu– New York hirian egin dituzu, baina azken diskoari Bilbao jarri diozu.

N.Y. oraindik ere ametsa bezalakoa da eta bertatik ikasten jarraitzen dut. Baina nire beste errealitatea Bilbo da eta bertakoa naiz.

### Bilbo, nahasketa kuttuna London eta Barakaldo artean.

Bilbok duen aberastasun handienetakoa aipatu duzu. Izateko era paregabea. Labe garaiak, ibaia, ontziolak... *La hostia*. Bertatik gatoz. Burberry, zapata ona, gabardina dotorea... eta txapela. Nortasun egiazkoa. Musikaik bageneuka!

### Zure moduko zenbat ezagutzen duzu?

Arraioa, zer nolako galdera... Ikusten da ongi pentsatu duzula, elkarrizketa ixteko balio baitizu. Tira, gauza bera erantzunez zirkulua itxiko dut: esan dezatela besteek. Nik arraunean jarraituko dut. ■